Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Irun
Tokiko Gobernu Batzarrak ... eguneko bilkuran.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local, en sesión de 4/5/2023

Irun, 5-05-2023
IDAZKARIA / SECRETARIA

SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

ZENBAIT FURGONETA ELEKTRIKO KONTRATATZEA IRUNGO UDALEKO ARLOETARAKO - BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

ARLO SUSTATZAILEA	EROSKETA ETA EKIPAMENDUA
ESPEDIENTE KODEA	2021ZAUN0098

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da teknologia % 100 elektrikoa duten furgoneta batzuk hornitzea Irungo Udaleko zenbait arloetarako, beharren arabera. Ibilgailuen prestazio teknikoak kontuan hartuta, espediente honetan, tamaina desberdineko furgonetak (txikiak, ertainak eta handiak) hornitzea sartzen da, arloen beharretara egokitzeko neurriak eta prestazioak kontuan hartuta.

2. KONTRATUAREN IRISMENA

Espedientean eskatutako furgoneta elektrikoak Irungo Udaleko hainbat alorretarako dira. Ohiko ibilbideak Irungo udal-mugartearen barruan egiten dira, noizean behin Donostialdetik eta Bidasoaldetik ere joan-etorriak egiten dituzte baina, eta salbuespenez, Gipuzkoatik kanpo ere bai.

Enpresa eskaintzaileek eskatutako 3 furgoneta-tamainak eskaini beharko dituzte, baina aldaerak ere eskaini ahal izango dituzte, hau da, marka-aukera eta/edo furgoneta-modelo desberdinak eskaini ahal izango dituzte, betiere agiri honetan adierazitako aginduak betetzen badituzte.

Udalak ibilgailu bat baino gehiago erosi ahalko du tamaina bakoitzetik, eta eskaini dituen prezio eta ezaugarri berberak mantendu beharko ditu enpresa eskaintzaileak. Lizitatzaileak, beraz, eskatutako hiru furgoneta-motetarako eskaintza aurkeztu beharko du:

- Furgoneta txikia
- Furgoneta ertaina
- Furgoneta handia

3. IBILGAILUEN OHIKO ERABILERA

Udalaren ibilgailuen erabilerari buruzko informazioa emateko, ondoren, gaur egun dauzkan furgoneta-moten zerrenda eta argazki batzuk jaso dira, kilometrajea eta antzinatasuna adierazita

Ibilgailu-mota	Marka-Modeloa	Antzinatasuna	Kilometroak Gutxi gorabehera
FURGONETA HANDIA	MERCEDES-SPRINTER 511 CDI	15	117305
KAMIONETA	MERCEDES-BENZ 412 D	26	213095

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

FURGONETA HANDIA	MERCEDES-SPRINTER 311 CDI	20	135540
KAMIONETA IREKIA	MERCEDES-SPRINTER 413 CDI	16	78882
KAMIONETA IREKIA	MERCEDES-SPRINTER 413 CDI	16	54100
KAMIONETA IREKIA	MERCEDES-SPRINTER 413 CDI	16	99360
GARABI-KAMIOIA	MERCEDES-1523 A	16	73923
FURGONETA HANDIA	MERCEDES-VITO 109 CDI	15	64933
FURGONETA HANDIA	MERCEDES-SPRINTER 311 CDI	22	127654
FURGONETA HANDIA	MERCEDES-SPRINTER 511 CDI	15	88333
KAMIONETA IREKIA	MERCEDES-411 CDI	20	144368
FURGONETA HANDIA	MERCEDES BENZ-311CDI	13	91496
KAMIONETA IREKIA	MERCEDES BENZ-SPRINTER 511CDI	13	62783
FURGONETA HANDIA	IVECO-35S12	19	78188
FURGONETA HANDIA	RENAULT-MASTER	4	29865
FURGONETA HANDIA	MERCEDES-VITO 111 CDI (639.D. D) MIXTO	17	175805
FURGONETA TXIKIA	CITROEN-YUMPI	23	142000
FURGONETA TXIKIA	CITROEN-C-15	21	73450
FURGONETA TXIKIA	CITROEN-BERLINGO 1. 9 D	16	142338
FURGONETA TXIKIA	CITROEN-BERLINGO 1.4	22	84515
FURGONETA TXIKIA	RENAULT-KANGOO ZE FURGÓN	1	3219
FURGONETA TXIKIA	RENAULT-KANGOO EXPRESS Z.E.	0	2779
FURGONETA TXIKIA	RENAULT-KANGOO Z.E.	1	5757
FURGONETA HANDIA	RENAULT-KANGOO EXPRESS	3	20771







Hiri-mantentzeko Brigadarako tamaina handiko furgonetaren adibidea



Eraikinak mantentzeko tamaina txikiko furgonetaren adibidea

4. ESKATZEN DIREN GUTXIENEKO EZAUGARRIAK

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARÍA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Furgoneta-motako ibilgailuak eskatzen dira, eskatzen diren hiru tamainetako bakoitzerako ondoren jasotzen diren gutxieneko eskakizun eta ezaugarriak errespetatuko dituztenak.

"I. eranskina – furgoneten ezaugarriak: txikiak, ertainak eta handiak (3 orri)" dokumenturako, Excel artxibo bat ematen da, enpresak bete beharrekoa eskaintzen dituen ezaugarriak adierazita. Dokumentu hori eskaintzaren dokumentazioarekin batera entregatu beharko da, lizitatzaile bakoitzak bete beharko duena eskaini dituen ezaugarriak adieraziz.

4.1.FURGONETA TXIKIA

- 40kW-ko gutxieneko potentzia
- X1R1 mota
- 160 km-ko gutxieneko autonomia (WLTP hiri-zikloa), baloratu egingo da, hobetuz gero.
- Bateriaren edukiera, 40 kWh. Baloratu egingo da, hobetuz gero.
- Zama erabilgarria: gutxienez 3 m3-ko bolumena, gutxienez 500 kg.
- Kaxa itxiaren motakoa
- Gutxieneko luzera: 4 metro
- Zabalera: 1,8 m inguru.
- Karga-puntuetarako kable egokiak eta korronte-hargune estandarrak barne.
- 2 plaza aurreko aldean, eta atzeko aldea, zamarako gaitua. Baloratu egingo da kargarako leku gehiago edukitzea.
- Gutxienez, gidariaren airbaga
- Ibilgailuaren kolorea: zuria, eskatutako errotulazioarekin
- Gutxienez 2 giltza, urrutiko agintedunak
- Gomazko alfonbrak aurrealdean
- Bi triangelu islatzaile tolesgarri homologatu eta 2 txaleko islatzaile homologatu
- Ibilgailuaren kolorea: zuria, eskatutako errotulazioarekin
- Gutxienez 2 giltza, urrutiko agintedunak
- Gomazko alfonbrak aurrealdean
- Bi triangelu islatzaile tolesgarri homologatu eta 2 txaleko islatzaile homologatu
- Guztiz kargatzeko denbora: gehienez 16 ordu. Baloratu ahal izango da, gutxiago izanez gero.
- Multimedia: CD irratia MP3duna, Bluetooth konexioa eta esku librekoa
- Bolantea eta eserlekuak: altueran doigarriak.
- Lanparen ordezkoak
- Aurrealdeko eserlekuek bizkarraldea inklinatzeko aukera izango dute, eta buru-euskarria ere edukiko dute, eta altuera eta sakoneran erregulatu ahal izango dira.
- Aurrealdeko buru-euskarri aktibo doigarriak
- Gutxienez 2 giltza, urrutiko agintedunak

4.2.FURGONETA ERTAINA

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Furgoneta ertainen motako ibilgailuak eskatzen dira, ondoren jasotzen diren gutxieneko eskakizun eta ezaugarriak beteko dituztenak. Furgonetak neurri zabalak izan beharko ditu, eta zama-edukiera handia, eta baloratu egingo da kargarako ahalik eta leku erabilgarri handiena edukitzea:

- Gutxieneko neurriak gutxi gorabehera:
  - Luzera: 4,9-5,25 m
  - Altuera: 1,85 - 2 m
- Gehienezko potentzia (gutxienez 55kW). Baloratu ahal izango da, hobetuz gero.
- 160 km-ko gutxieneko autonomia (WLTP hiri-zikloa), baloratu egingo da, hobetuz gero.
- Bateriaren edukiera, 50 kWh. Baloratu egingo da, hobetuz gero.
- Gutxienez 2 plaza aurrealdean. Baloratu ahal izango da, aurrealdean 3 plaza edukiz gero.
- Gutxienez 2 giltza, urrutiko agintedunak
- Kaxa itxiaren motakoa
- Alboan ate lerragarria (gutxienez gidariaren kontrako aldean) eta atzean ate zabukariak, ahal dela asimetrikoak.
- Ibilgailuaren kolorea: zuria, eskatutako errotulazioarekin
- Gutxienez 2 giltza, urrutiko agintedunak
- Gomazko alfonbrak aurrealdean
- Bi triangelu islatzaile tolesgarri homologatu eta 2 txaleko islatzaile homologatu
- Guztiz kargatzeko denbora: gehienez 16 ordu. Baloratu ahal izango da, gutxiago izanez gero.
- Karga-puntuetarako kable egokiak eta korronte-hargune estandarrak barne.
- ABS, gidariaren airbaga,
- Bolantea eta altueran erregulatu daitekeen eserlekua
- Gomazko alfonbrak aurrealdean

4.3.<u>FURGONETA HANDIA</u>

Furgoneta handien motako ibilgailuak eskatzen dira, ondoren jasotzen diren gutxieneko eskakizun eta ezaugarriak beteko dituztenak. Furgonetak neurri zabalak izan beharko ditu, eta zama-edukiera handia, eta baloratu egingo da kargarako ahalik eta leku erabilgarri handiena edukitzea:

- Tamaina eta mota: L3H2
- Gehienezko potentzia (gutxienez 55kW). Baloratu ahal izango da, hobetuz gero.
- Gutxieneko karga erabilgarria: 950 kg. Baloratu egingo da karga erabilgarriarena hobetzea.
- Gutxieneko karga-espazio hau izan beharko luke, gutxi gorabehera: Luzera: 3,2 metro; zabalera: 1,7 metro; eta altuera: 1,75 metro. Baloratu egingo da kargarako espazio erabilgarri handiagoa edukitzea.
- 160 km-ko gutxieneko autonomia (WLTP hiri-zikloa), baloratu egingo da, hobetuz gero.
- Bateriaren edukiera, 45 kWh. Baloratu egingo da, hobetuz gero.
- Kaxa itxiaren motakoa
- 3 plaza, aurrealdean.
- Alboan ate lerragarria (gutxienez gidariaren kontrako aldean) eta atzean ate zabukariak, ahal dela asimetrikoak.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

- Ibilgailuaren kolorea: zuria, eskatutako errotulazioarekin
- Gutxienez 2 giltza, urrutiko agintedunak
- Gomazko alfonbrak aurrealdean
- Bi triangelu islatzaile tolesgarri homologatu eta 2 txaleko islatzaile homologatu
- Guztiz kargatzeko denbora: gehienez 16 ordu. Baloratu ahal izango da, gutxiago izanez gero.
- Karga-puntuetarako kable egokiak eta korronte-hargune estandarrak barne.
- ABS, gidariaren airbaga,
- Bolantea eta altueran erregulatu daitekeen eserlekua
- Gomazko alfonbrak aurrealdean

5. TAILER ZERBITZUA

Enpresa esleipendunak eskaintzaren barnean sartu beharko du ibilgailuarentzako Tailer Zerbitzu Ofizial batean arreta ematea. Zerbitzu horrek Irundik ahalik eta gertuen egon behar du, inoiz ez 25 km baino urrutiago, eta era guztietako konponketak eta mantentze-lanak, ibilgailu elektrikoentzako espezifikoak barne, egiteko instalazioak eta gaitasun operatiboa izan behar ditu.

6. PRESTAKUNTZA PRAKTIKOA

Esleipendun gertatzen den enpresak, halaber, erabiliko dituzten langileei berariazko prestakuntza labur bat eman beharko die ibilgailu elektrikoaren erabilera, funtzionamendu eta eguneroko mantentze egokiari buruz. Prestakuntzaren ondoriozko gastu guztiak esleipendunaren kontura izango dira.

7. HORNIDURAREN BERMEA

Horniduraren gutxieneko bermealdia BI (2) URTEKOA izango da, fabrikazioan, garraioan, edo horniduran gertatutako akats orori dagokionez. Hortik kanpo geratzen dira behar bezala ez erabiltzeagatik edo axola gabe maneiatzeagatik gertatzen diren kalteak. Alde horretatik, fabrikatzailearen jarraibideak bete beharko dira, erabilerari eta mantentze-lanei dagokienez. Ibilgailuaren bateriaren kasuan, berme-aldia gutxienez BOST (5) URTEKOA edo 100.000 km-koa izango da, eta aldi horretan, gutxienez jatorrizko edukieraren % 70eko karga-ahalmena bermatu beharko du. Hori irizpide automatiko baloragarria da.

Hartzerakoan edo berme-aldian horniduran akatsik edo okerrik badagoela egiaztatzen bada, SPKLan aurreikusitakoa betekoa da. Egiaztapenak behar bezala gainditu eta entregaren baldintzak egiaztatu ondoren, betiere baldintza teknikoen pleguko betekizunak eta lizitatzailearen eskaintza beteta, hartutzat emango da hornidura, eta hornidura onartu eta orduan hasiko da berme-epea.

Berme-epean akatsen bat ikusten bada, Irungo Udalak kontratistari erreklamatzeko eskubidea izango du, desegokiak diren hornidura-elementuak berriz jar ditzan edo elementu horiek konpon ditzan, hori nahikoa balitz. Esleipenduna behartuta egongo da hornitutako elementuak behar duten ordezko edozein elementu hornitzera. Halaber, ibilgailuaren edozein elementu konpontzeaz eta mantentzeaz arduratu beharko du, bateria mantentzea barne.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

8. HORNITZEKO BETEKIZUNAK.

Esleipendunaren kontura izango dira hornidura garraiatzea, bilgarriak kentzea, bermeak, zergak, tasak, edozein motatako kanonak, baimenak, istripuko eta erantzukizun zibileko aseguruak, Gizarte Segurantza eta hornidura entregatzeak berezko dituen gastu guztiak.

Esleipendunak telefono-zenbaki bat eta posta elektronikoko helbide bat emango ditu, eta solaskide bat izendatu ere bai, udalak testuinguru horretan erreklamazioak, eskaeren egoerak edo edozein kontsiderazio bidera ditzan.

9. KANPOKO ERROTULAZIOA

Eskainitako ibilgailuek zuriak izan beharko dute, eta Irungo Udala eta udal-zerbitzua identifikatzeko kanpo-errotulazioa eduki beharko dute. Errotulazioa ondoko argazkiotan agertzen denaren antzekoa izango da, oraingo formatua mantenduz eta testuen zati bat aldatuz (udal-arloa) eta ibilgailua elektrikoa edo "garbia" dela azalduz. Ibilgailuak errotulatu aurretik, diseinua aurkeztu beharko da, azkenean Irungo Udalak onetsi behar baitu.





IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

10. IBILGAILUAK UDALAREN ESKURA JARTZEA

Errotuluak behar bezala jarrita eta behar bezala matrikulatu eta homologatuta entregatu beharko da furgoneta, eta, beharrezkoa bada, ibilgailuen azterketa teknikoa eginda eta behar diren zirkulazio-baimenekin. Orduan ulertuko da udalaren eskura jarri direla. Hori guztia ibilgailuak entregatzeko gehieneko 6 hilabeteko epean egin beharko da.

11. IBILGAILUA PROBATZEKO ESKAERA

Ibilgailuaren prestazioak egiaztatzeko eta udal-zerbitzuek eskatu duten erabilerarako egokia dela frogatzeko, antzeko ezaugarriak dituen ibilgailu bat probatzeko eskatu ahalko da, eskaintza teknikoak baloratzeko garaian. Horretarako, eskaintzaileak antzeko prestazioak dituen ibilgailu elektriko bat jarri beharko du Irungo Udalaren esku, Irundik 100 km-ra gehienez ere, ibilgailua probatzeko behar adina denboran.

Irunen, sinaduraren datan.

Erosketa eta Ekipamenduetako burua

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

I.ERANSKINA - FURGONETA TXIKIEN, ERTAINEN ETA HANDIEN EZAUGARRIEN TAULA

FURGONETA TXIKIA

ZEHAZTAPENAK	BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAN ESKATUTAKO GUTXIENEKO EZAUGARRIAK
Ibilgailu-mota:	Furgoneta % 100 elektrikoa
Furgonetaren tamaina	L1H1
Gidaritza elektrikoaren gutxieneko autonomia (WLTP hiri-zikloa)	160 km, baloragarria gehiago izatea
Gidaritza elektrikoaren gutxieneko autonomia (WLTP ziklo konbinatua)	
Gutxieneko potentzia (Kw) (adierazi kW-tan edo CV-tan)	40 kW
Plaza-kopurua:	Gutxienez 2, aurrealdean
Ibilgailuaren altuera:	1,75 metrotik gora
Gutxieneko luzera:	4 metro
Zabalera:	1,8 metro inguru
Zama-edukiera:	3 m3 gutxienez
Zama:	500 kg gutxienez
Bateria:	40 kWh baino gehiago
Guztiz kargatzeko denbora (mantsoa):	Gehienez 16 ordu. Baloragarria gutxiago izatea
Kargatzeko kablearen hornidura:	BAI (kargatzeko puntuetarako eta korronte-hargune estandarretarako baliagarria)
KANPO NEURRIAK ETA ZAMA	
Ibilgailuaren altuera:	Gutxieneko luzera: 4 metro
Gutxieneko luzera:	
Zabalera:	Zabalera: 1,8 m inguru.
Zama-espazioaren neurriak (luzera/zabalera/altuera)	3m3-ko bolumena
Gehieneko zama:	Gutxienez 500 kg, baloragarria gehiago izatea
Aurreko ateak	Hosto-irekiera
Atzeko ateak	
EKIPAMENDUA, SEGURTASUNA ETA KONFORTA	
Multimedia:	CD irratia MP3duna, Bluetooth konexioa eta

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

	esku librekoa
Kristal-jasogailuak:	Elektrikoak
Aire-girogailua/Klimatizagailua:	
Frenoak	
ABS:	BAI
Frenatze lagundua:	
Gidariaren airbaga:	BAI
Egonkortasuna kontrolatzeko sistema:	BAI
Bolantea eta eserlekua:	Altueran doigarriak
Direkzio lagundua:	BAI
Ixte zentralizatua eta urrutiko agintea:	
Aparkatzeko aurreko eta atzeko sentsoreak	
Argiak automatikoki pizteko sentsorea	
Euri-sentsorea.	
Aurreko kristal-jasogailu elektrikoak:	
Eserlekuak - bizkarraldekoaren inklinazioa erregulagarria eta buru-euskarria	
Ordezko gurpila edo konpontzeko kita: ADIERAZI ZEIN	BAI
Leihatilak ibilgailuaren atzealdean, puntu hilik ez izateko.	baloragarria
Leihatilak zama banatzeko erdialdean	baloragarria

ENPRESAK EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA ETA BESTE EZAUGARRI AIPAGARRI BATZUK
Kontsumo elektrikoa:
0-100 km/h (seg):
Gehieneko abiadura:
Trakzio-mota:
Gurpilen presioa monitorizatzeko sistema:
Frenatze-sistema:
Konfort-elementu gehigarri hauek barne:
Ingurumen-ziurtagiriak:
Beste segurtasun-neurri batzuk:
Zama-guneko barne-estaldura
Nabigatzailea
BESTE HOBEKUNTZA INTERESGARRRI BATZUK

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

2 MOTA - FURGONETA ERTAINA

ZEHAZTAPENAK	BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAN ESKATUTAKO GUTXIENEKO EZAUGARRIAK
Ibilgailu-mota:	Furgoneta elektrikoa
Aurreko plaza-kopurua:	GUTXIENEZ 2, BALORA DAITEKE 3
Gidaritza elektrikoaren gutxieneko autonomia (WLTP hiri-zikloa)	160 km, baloragarria gehiago izatea
Gidaritza elektrikoaren gutxieneko autonomia (WLTP ziklo konbinatua)	
Potentzia (kW) (adierazi kW-tan edo CV-tan)	55 kW, baloragarria hobetzea
Bateria (kWh)	50 kWh baino gehiago
Guztiz kargatzeko denbora (mantsoa):	Gehienez 16 ordu. Baloragarria gutxiago izatea
Kargatzeko kablearen hornidura:	BAI (kargatzeko puntuetarako eta korronte-hargune estandarretarako baliagarria)
KANPO NEURRIAK ETA ZAMA	
Ibilgailuaren altuera:	1,85 - 2 m
Gutxieneko luzera:	4,9-5,25 m
Zabalera:	
Zama-espazioaren neurriak (luzera/zabalera/altuera)	
Gehieneko zama:	
Aurreko ateak	Hosto-irekiera
Sartzeko atea	Alboan ate lerragarria (ezinbestekoa alboetako batean) eta atzean, ate zabukariak, ahal dela ate asimetrikoak.
EKIPAMENDUA, SEGURTASUNA ETA KONFORTA	
Multimedia:	CD irratia MP3duna, Bluetooth konexioa eta esku librekoa
Kristal-jasogailuak:	Elektrikoak
Aire-girogailua/Klimatizagailua:	
Frenoak	
ABS:	BAI
Frenatze lagundua:	
Gidariaren airbaga:	BAI

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Egonkortasuna kontrolatzeko sistema:	BAI
Bolantea eta eserlekua:	Altueran doigarriak
Direkzio lagundua:	BAI
Ixte zentralizatua eta urrutiko agintea:	
Aparkatzeko aurreko eta atzeko sentsoreak	
Argiak automatikoki pizteko sentsorea	
Euri-sentsorea.	
Aurreko kristal-jasogailu elektrikoak:	
Eserlekuak - bizkarraldekoaren inklinazioa erregulagarria eta buru-euskarria	
Gomazko alfonbrak aurrealdean	BAI
Ordezko gurpila edo konpontzeko kita: ADIERAZI ZEIN	BAI

ENPRESAK EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA ETA BESTE EZAUGARRI AIPAGARRI BATZUK

Kontsumo elektrikoa:
0-100 km/h (seg):
Gehieneko abiadura:
Trakzio-mota:
Gurpilen presioa monitorizatzeko sistema:
Frenatze-sistema:
Konfort-elementu gehigarri hauek barne:
Ingurumen-ziurtagiriak:
Beste segurtasun-neurri batzuk:
Zama-guneko barne-estaldura
Nabigatzailea
BESTE HOBEKUNTZA INTERESGARRRI BATZUK

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

3. MOTA: FURGONETA HANDIA

ZEHAZTAPENAK	BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAN ESKATUTAKO GUTXIENEKO EZAUGARRIAK
Ibilgailu-mota:	Furgoneta elektrikoa
Furgonetaren tamaina	L3H2
Aurreko plaza-kopurua:	3
Gidaritza elektrikoaren gutxieneko autonomia (WLTP hiri-zikloa)	160 km, baloragarria gehiago izatea
Gidaritza elektrikoaren gutxieneko autonomia (WLTP ziklo konbinatua)	
Potentzia (kW) (adierazi kW-tan edo CV-tan)	55 kW, baloragarria hobetzea
Bateria (kWh)	45 kWh baino gehiago
Guztiz kargatzeko denbora (mantsoa):	Gehienez 16 ordu. Baloragarria gutxiago izatea
Kargatzeko kablearen hornidura:	BAI (kargatzeko puntuetarako eta korronte-hargune estandarretarako baliagarria)
KANPO NEURRIAK ETA ZAMA	
Ibilgailuaren altuera:	
Gutxieneko luzera:	
Zabalera:	
Zama-espazioaren neurriak (luzera/zabalera/altuera)	Luzera: 3.2 m; zabalera: 1.7 m; altuera: 1.75 m
Gehieneko zama:	Gutxienez 950 kg, baloragarria gehiago izatea
Aurreko ateak	Hosto-irekiera
Sartzeko atea	Alboan ate lerragarria (gutxienez alboetako batean) eta atzean, ate zabukariak, ahal dela ate asimetrikoak.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

EKIPAMENDUA, SEGURTASUNA ETA KONFORTA	
Multimedia:	CD irratia MP3duna, Bluetooth konexioa eta esku librekoa
Kristal-jasogailuak:	Elektrikoak
Aire-girogailua/Klimatizagailua:	
Frenoak	
ABS:	BAI
Frenatze lagundua:	
Gidariaren airbaga:	BAI
Egonkortasuna kontrolatzeko sistema:	BAI
Bolantea eta eserlekua:	Altueran doigarriak
Direkzio lagundua:	BAI
Ixte zentralizatua eta urrutiko agintea:	
Aparkatzeko aurreko eta atzeko sentsoreak	
Argiak automatikoki pizteko sentsorea	
Euri-sentsorea.	
Aurreko kristal-jasogailu elektrikoak:	
Eserlekuak - bizkarraldekoaren inklinazioa erregulagarria eta buru-euskarria	
Gomazko alfonbrak aurrealdean	BAI
Zama-guneko barne-estaldura	
Ordezko gurpila edo konpontzeko kita: ADIERAZI ZEIN	BAI

ENPRESAK EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA ETA BESTE EZAUGARRI AIPAGARRI BATZUK

Kontsumo elektrikoa:
0-100 km/h (seg):
Gehieneko abiadura:
Trakzio-mota:
Gurpilen presioa monitorizatzeko sistema:
Frenatze-sistema:

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Konfort-elementu gehigarri hauek barne:
Ingurumen-ziurtagiriak:
Beste segurtasun-neurri batzuk:
Nabigatzailea
BESTE HOBEKUNTZA INTERESGARRRI BATZUK